



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Bihozberri zaitetze, ganean baituzue Jainkoaren erregetza”

2022ko abenduaren 4a  
Abenduko 2. igandea (A)

### Mateo 3, 1-12.

Garai hartan agertu zen Joan Bataiatzailea, Judeako basamortuan honela hots eginez: “Bihozberri zaitetze, ganean baituzue Jainkoaren erregetza”. Joan honi buruz esan zuen, hain zuzen, Isaias profetak: *Ahots bat oihuka ari da basamortuan: Prestatu bidea Jaunari, zuzendu bidexkak hari.*

Joanek gameluilezko jantzia zuen soineko eta larruzko uhala gerriko, eta matxinsaltoak eta basa ezta zituen janari.

Jerusalem hiriko, Judea osoko eta Jordan inguru guztiko jendea harengana joaten zen, eta, beren bekatuak aitortzen zituztela, Joanek bataiatu egiten zituen Jordan ibaian. Fariseu eta saduzear askori, bataiatzera zetozela ikustean, honela esan zien Joanek: “Sugekumeok! Nork esan dizue ganean duzuen haserrezigorrari ihes egingo diozuela? Ager ezazue zeuen jokabideaz bihozberrituak zaudetela, eta ez pentsa nahikoa duzuenik ‘Abrahamen ondorengo gara’ esatea. Egia esan, honako harri hauetatik ere atera ditzake Jainkoak Abrahamen ondorengoak. Prest dago aizkora zuhaitza hondotik jotzeko: fruitu onik ematen ez duen zuhaitz oro moztu eta sutara botako da. Nik urez bataiatzen zaituztet bihozberri zaitetzen; baina nire ondoren datorrena ni baino ahaltsuago da, eta ni ez naiz inor hari oinetakoak erantzeko ere; horrek Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte. Eskuan dauka sardea, eta garia garbitzera doa: alea mandioan jasoko du; lastoa, ordea, inoiz itzaliko ez den sutan erreko”.

Zuruetako Erreinua urbil dagola iragartzen du Jon Bateatzaileak. Frutu onik ekarri ez dagian zugaizta ebakia ta sutara jaurtia izango da.

## EZ BAZTER UTZI BIHOTZ BERRITZEA

Jose Antonio Pagola

«**Bihotz berri zaitetze, hurbil baita Jainkoaren erreinua**». Mateoren arabera, hauek dira Joanek Judeako basamortuan jaulki dituen lehenengo hitzak. Eta, orobat, hauek dira Jesusek jaulki dituen lehenengoak, bere profeta-jarduera hastean, Galileako aintzira-ertzean.

Bataiatzailearen predikuaekin eman da entzutera Jesusen mezuaren muina izango den konbertsiorako deia. Jesus ez da artean agertu, eta Joan hor ari da errotiko aldaketara dei egiten, zeren Jainkoak bizitza bere egiazko jomugara bideratu nahi baitu.

Bihotz berritze hau ez datza penitentzia egitean. Ez da aski herri hautaturiko kide izatea ere. Ez da aski Jordango bataioa hartzea. Beharrezkoa da «**bihotz berritzeak eskatzen duen fruitua ematea**»: bizitza berria, Jainkoaren erreinua onartzera bideratua.

Jada basamortuan entzutera ematen hasia den dei hau izango da Jesusen mezuaren giharra, haren bizitza guztia arnastuko duen irrika. Hona zen dioen: «Aro berria hasi da. Hurbil da Jainkoa. Ez zaituzte bakarrik utzi nahi zeuen arazoan eta gatazken aurrean. Haurride bezala bizitza partekatzen ikusi nahi zaituzte. Jainkoa guztien Aita bezala onartzen. Ez ahaztu haren mahai inguruan azken Jaia ospatzeko deia jaso duzuela».

Ez genioke amore eman behar Jainkoaren erreinura konbertitu ez den Eliza batean bizitzeari. Ez dugu zilegi Jesusi jarraitzea haren egitasmoa onartu gabe. Vatikanoko II.a kontzilioak argi eta irmo deklaratu du: «*Elizak, munduari laguntza ematean eta mundutik askotariko laguntza jasotzean, ez du amets bat baizik: etor dadila Jainkoaren erreinua eta gauzatu dadila gizadiaren salbazioa*».

Bihotz berritze hau ez da norbanakoaren aldaketa hutsa, baizik Elizan sortu behar dugun giroa da, zeren Eliza osoak behar baitu bizi Jainkoaren erreinua onartuz. Ez datza jarduera erlijiosoak leialtasun handiagok betetzean ere, baizik gizarteak «**Jainkoaren erreinua eta haren justizia**» bilatzean.

Ez da aski kristau-elkarteetan Elizaren «sakramentuak» era duinagoan ospatzeko ardura. Beharrezkoa da, gainera, Jesusek betetzen zituen erreinuko «seinaleak» sustatzea: jenderik ahulena onartu, sufritzen ari direnez gupidatu, gizarte berradiskidetu sortu, barkazioa doan eskaini, pertsona oro defenditu.

Horregatik, bihotz berritzeko desira sakonak arnasturik, hau dio Vatikanoko II.ak: «*Liturgiak ez du agortzen Elizaren jardura guztia; izan ere, gizon-emakumeak ospakizunera iritsi ahal daitezten, beharrezkoa da alde zurretatik federako eta bihotz berriko deia jaso dezaten*». Ez genuke eginkizun hori bazter utzi behar.